




MARTIN GRIFFITHS

2021eko maiatzean, Antonio Guterres Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak Larrialdietarako Laguntzaren koordinatzaile eta Giza Gaietarako idazkariorde nagusi izendatu zuen Martin Griffiths (Erresuma Batua).

Esperientzia handia du aferra humanitarioetan. 2018tik aurrera, NBEko idazkari nagusiaren Yemenerako mandatari berezia izan da. 2014 eta 2018 artean, Bakearen Europako Institutuko lehen zuzendari exekutiboa izan zen. 2012tik 2014ra bitartean, NBEko idazkari nagusiaren Siriarako hiru mandatari berezien aholkularia eta Nazio Batuen Siriako Ikuskapen Misioren (UNSMIS) zuzendariordea. 1999tik 2010era bitartean, Genevako Henri Dunant Elkarrizketa Humanitariorako Zentroaren zuzendari fundatzailea izan zen. Henri Dunant zentroko zuzendari gisa, ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketak sustatu zituen 2006/07an eta ondorengo urteetan.

Britainia Handiko diplomazia zerbitzuan eta nazioarteko hainbat erakundetan ere lan egin du (UNICEF, Save the Children, Action Aiden...). 1994an, Afera Humanitarioen Saileko zuzendari izendatu zuten, Genevan. 1998tik 1999ra bitartean, Nazio Batuen Erakundeko Larrialdietarako Laguntzaren koordinatzailearen ondokoa izan zen New Yorken. Nazio Batuen Erakundeko Aintzira Handietarako eta Balkanetarako koordinatzaile humanitarioa ere izan da.

Londresko Unibertsitateko Ekialdeko eta Afrikako Ikasketen Eskolako Asia hego-ekialdeko ikasketen masterra du eta abokatu kalifikatua da.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS




JONATHAN POWELL

Gatazken konponketan eta bitartekaritzan aritzen den Inter/Mediate zentroaren sortzailea eta zuzendaria. 1997tik 2007ra bitartean, Tony Blairren kabineteburua izan zen, eta Erresuma Batuko Gobernuaren negoziatzaile nagusia Ipar Irlandan.

1979tik 1996ra bitartean, Britaina Handiko diplomazialari gisa aritu zen. Besteak Beste, Hong Kong Txinara itzultzeko negoziazioetan lan egin zuen (1980ko hamarkadaren hasieran), CSCEn giza eskubideen inguruko elkarriketetan, CDEk Sobietar Batasunarekin armak kontrolatzeko egindako elkarriketetan (1980ko hamarkadaren erdialdean) eta Alemaniaren bateratzeari buruzko 'Bi gehi lau' elkarriketetan (1980ko hamarkadaren amaieran).

Gobernua utzi zuenetik, hainbat liburu idatzi ditu, hala nola *Great Hatred Little Room: Negotiating Peace in Northern Ireland*; *The New Machiavelli: How to wield power in the modern world* eta *Talking to terrorists*.

Europako eta Asiako hainbat gobernuen eta talde matxinaturen arteko negoziazioetan parte hartu du. ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarriketa prozesuan esku hartu zuen 2006/07an eta ondorengo urteetan. 2011ko urriko Aieteko Konferentzian parte hartu zuen.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



BRIAN CURRIN

Hegoafrikako abokatua, eskubide zibiletan eta giza eskubideetan espezializatua. Gatazken konponbiderako Concentric Alliance elkartearen fundatzaile eta zuzendaria. 1994an, Nelson Mandelaren mandatuz, apartheidari buruzko ikerketa batzorde baten buru izan zen. Geroago, Egiaren Batzordearen sorreran parte hartu zuen. Bitartekari gisa parte hartu du Hegoafrikako eta Ipar Irlandako prozesuetan, baita trantsizio politikoko beste prozesu batzuetan ere (Sri Lankan, Ruandan eta Ekialde Hurbilean). Hasieratik bertatik euskal prozesuan engaiatuta, Bruselako Adierazpenaren eta Harremanetarako Nazioarteko Taldearen sustatzailea izan zen, eta Aieteko Konferentziaren antolaketan parte hartu zuen.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



TERESA WHITFIELD

NBEko Gai Politikoen Saileko Politika eta Bitartekaritza Dibisioko zuzendaria. Nazioarteko lankidetzari buruzko irakasle emeritua izan da New Yorkeko Unibertsitatean, eta Nazioarteko Krisi Taldeko presidentearen aholkulari nagusia. Henri Dunant zentroari lotuta dago. Conciliation Resources fundazioaren administrazio kontseiluko kidea da. Bakerako eta Gatazken Prebentziorako Foroaren zuzendaria izan zen Gizarte Zientzien Ikerketa Kontseiluan. Beste argitalpen batzuen artean, Ignacio Ellacuriari eta El Salvadorko jesuitei buruzko liburu bat idatzi du (*Paying the price*), eta ETArekin amaierari eta Euskal Herriko bake "lorgaitzari" buruzko bat (*Endgame for ETA, elusive peace in the Basque Country*).



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS




SERGIO JARAMILLO

Bakearen Europako Institutuko aholkulari seniorra da. Lehenago, Juan Manuel Santos Kolonbiako presidentearen Bakerako goi komisarioa (2012-2016) eta Segurtasun Nazionalerako aholkularia (2010-2012) izan zen. Kargu horretan, lehenik, FARC gerrillarekiko isilpeko negoziazioak gidatu zituen, 2012ko Akordio Orokorra sinatu zen arte. Gero, 2016ko azaroan Azken Akordioa sinatuz amaitu ziren negoziazio publikoen buru izan zen, Humberto de la Callerekin batera.

Bakerako komisario gisa, 2017an FARCen armagabetzea gainbegiratu behar izan zuen. Ondoren, Europako Batasunerako eta Belgikarako enbaxadore izendatu zuten (2017-2018).

Aurretik, Nazioarteko Politika eta Gaietarako Defentsa ministrordea (2006-2009) eta Bogotako Bakerako Ideiak fundazioko zuzendari exekutiboa izan zen (2004-2006). Kanpo Harremanetarako eta Defentsa ministroen aholkularia ere izan da (2000-2003).



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



ANDY CARL

Eskarmentu handia du gatazken konponketan. 1994an, Conciliation Resources fundazioaren sortzaileetako bat izan zen, eta berak zuzendu zuen 2016ra arte. Gaur egun, hainbat ekimen garatzen ari da Somalian, Afrikako Aintzira Handien eskualdean eta Ipar Irlandan. Komunitateekin lan egiten du gertatutakoaren egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermea kudeatzeko moduaren inguruan. Euskal prozesuan esku hartu du Conciliation Resources fundazioarekin batera.



A DECADE AFTER AITE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



VERONIQUE DUDOUET

Gatazken konponketan doktorea. Gai horri buruzko hainbat txosten eta liburu idatzi ditu. 2005etik, Berghof fundazioan lan egiten du. Bertan, hainbat ikerketa proiektu garatu ditu, nagusiki honako gai hauek jorratuz: erresistentzia/askapen mugimenduak; negoziazioa eta bitartekarien esku-hartzea gatazka asimetrikoetan; eta gatazkaren ondorengo gobernantza eta borroka armatutik erresistentzia zibilera igarotzeko trantsizioa. Gizarte zibileko hainbat erakunderen eta nazioarteko hainbat agentziaren aholkularia da. Euskal prozesuan esku hartu du Berghof fundazioarekin batera.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



JONATHAN COHEN

Conciliation Resources fundazioko zuzendari exekutiboa. 1997an sartu zen fundazioan, eta Kaukasorako programa garatu zuen. Programaren helburua Kaukason bakea sendotzea zen, elkarrizketaren eta konfiantza sustatzeko ekimenen bidez. 2008ko irailean, programen zuzendari izendatu zuten. Ordutik geroztik, haren zeregin nagusia Conciliation Resources fundazioaren programak ikuskatzea izan da, Kaukason, Kolonbian, Mendebaldeko Afrikan, Erdialdeko eta Ekialdeko Afrikan, Afrikako Adarrean, Filipinetan, Fijin eta India/Pakistanen (Kaxmir eskualdeari dagokionez). Conciliation Resourcesek garrantzi handiko lana egin du euskal prozesuan.



A DECADE AFTER AITE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



JOHN CARLIN

Londresen jaioa, gaur egun Bartzelonan bizi da. Eskarmentu handiko kazetaria. Politikaz eta kirolaz idazten du La Vanguardian eta beste hedabide batzuetan. Berriemaile gisa jardun du Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako gatazka askotan. Hainbat liburu idatzi ditu, haien artean *Playing the Enemy: Nelson Mandela and the Game That Made a Nation* (zinemara eraman zen *Invictus* izenburuarekin).



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



CAROLINE GUIBET LAFAYE

Filosofian doktorea. Katedradun emeritua Frantziako Zientzia Ikerketarako Zentro Nazionallean. Europako (Alemania, Italia, Frantzia eta Espainia) eta Ekialde Hurbileko zenbait estatutako mugimendu politiko ez-alderdikoien motibazioak aztertzen ditu. Haren ikerketa arloak honako hauek dira: desberdintasun sozialak, erradikalizazio politikoa, indarkeriazko konpromisoa, gai etikoak eta dilema moralak. 2020an, Euskal Herriko militantzia klandestinoari eta indarkeriari buruzko hiru lan argitaratu zituen, baita emakumeen indarkeria politikoari buruzko liburu bat ere.



A DECADE AFTER AITE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



KARMEN GALDEANO PRIETO

Zuzenbidean lizentziatua. Euskal presoen abokatua izan da. 1985ean, GALEk haren aita (Xabier Galdeano) hil zuen, Donibane Lohitzunen; beraz, talde parapolizialen indarkeriaren biktima da. Azken urteotan, ETaren biktimekin izandako topaketetan parte hartu du. Entzutearen eta sufrimendu guztiak aitortzearen alde egin du, eta, era berean, justizia eta aitortza eskatu dizkie instituzioei. Egiari Zor Fundazioko kidea.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



AGUS HERNAN

Kazetaria eta komunikazio gaiei buruzko aholkularia. Antxeta Irratiari lotua. 2016az geroztik, Foro Sozial Iraunkorraren koordinatzailea da. Foroaren lana garrantzitsua izan da eta izaten ari da, garrantzi handiko arloak lantzen baititu, hala nola proposamen inklusiboak egitea, armagabetze zibila erraztea, ETAren desagitea, biktimen eskubideak, presoek egoeraren konponketa, eta bizikidetzak demokratikorako eta memoriarako proposamenak. Bakea eraikitzeko prozesuaren fase guztietan urrats erabakigarriak egitea ahalbidetu duen euskal gizarte zibileko pertsonetako bat da.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



PAUL RIOS

Zuzenbidean lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Giza Eskubideen masterra egin du Universitat Oberta de Catalunyan. 2006tik 2015era bitartean Euskal Herrian bakearen, akordioaren eta kontsultaren alde lan egin zuen Lokarri sare herritarraren koordinatzaile eta bozeramailea izan zen. Erraztaile eta antolatzaile gisa parte hartu zuen 2011ko urriko Aieteko Konferentzian. Esperientzia oparoa du arlo horietan. Gaur egun, aholkulari independentea eta kanpo proiektuetarako aholkularia da Kolonbian.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS




AITZPEA LEIZAOLA

Antropologian eta Hizkuntzalaritzan lizentziaduna Paris X eta Sorbona unibertsitateetan. Antropologian doktoratu zen Nanterreko Unibertsitatean, muga politikoek Euskal Herriko nortasunean eta lurraldetasunean dituzten ondorioei buruzko tesi batekin. Ikasketak egin ditu Berlinen, Belfasten eta Renon (Nevada, AEB) ere. 2004an eta 2005ean, Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria izan zen. Gaur egun, Antropologia irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako campusean. Foro Sozial Iraunkorreko kidea da.



JUAN JOSE IBARRETXE

1999tik 2009ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen, koalizio gobernuen buru. Lehenago, Laudio bere jaioterriko alkatea izan zen, Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria eta prokuradorea, eta Eusko Legebiltzarreko kidea 1984tik, EAJ ordezkatzuz beti. Lehendakari gisa egin zuen bigarren agintaldian, Euskadiraiko estatutu politiko berri baterako plana aurkeztu zuen. Gaur egun, Agirre Lehendakaria Centerreko lehendakaria da. Giza garapen iraunkorrerako gizarte berrikuntzako laborategia da Agirre Lehendakaria Center.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



QUIM TORRA

Kataluniako Generalitateko presidente ohia. Zuzenbidean lizentziaduna. 2007an, "A Contra Vent Editors" argitaletxea sortu zuen. Hainbat plataforma independentistatan parte hartu zuen eta Omnium Cultureko presidentea izan zen denboraldi batez. 2017an parlamentari hautatu zuten, Junts per Catalunya ordezkatzuz. 2018ko maiatzean presidente izendatu zuten, JxCaten eta ERCren arteko koalizio gobernu baten buru, Carles Puigdemonten ondoren. 2020ko irailean kargua utzi behar izan zuen, Auzitegi Gorenak haren aurkako epai bat berretsi baitzuen, "desobedientzia" egotziz.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



AMALUR ÁLVAREZ ORTIZ

Erabakitzeko eskubidearen aldeko Gure Esku Dago herri plataformako kidea hasieratik. 2019ko martxoaz geroztik, plataformako bozeramailea Josu Etxabururekin batera. Abokatua da eta arlo juridikoan euskararen presentzia sustatzeko lan egiten du Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan. Eusko Ikaskuntzako eta Gazteak Together erabakitzeko eskubidearen aldeko gazte taldeko kidea da. Zientzia juridiko eta politikoen arloko ikertzaile, erabakitzeko eskubideari buruzko tesia prestatzen ari da.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



JORDI CUIXART

Aktibista eta enpresaburua. Omnium Cultureko kidea 1996tik eta elkarte horretako presidentea 2015etik. Kataluniako independentismoaren aurka 2017an hasitako prozesuan epaituta, 9 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 2017ko urriaren 16tik 2021eko ekainaren 23ra arte egon da preso. Egun horretan, indultua jaso zuen, auzian kondenatutako gainerako kideekin batera. Behin eta berriz esan du du berak ez zuela graziazko neurririk eskatu eta, kausa kolektibo baten eta errepresaliatutako 3.000 pertsona baino gehiagoren aurrean, amnistia beharrezkoa dela gatazkaren konponbide demokratikoari aurre egiteko.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



STEPHEN GETHINS

Eskoziako St. Andrews Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetarako Eskolako irakaslea. Lehenago, Erresuma Batuko Parlamentuko kidea eta Nazioarteko Gaietarako eta Europarako bozeramailea izan zen, SNP Eskoziako Alderdi Nazionala ordezkatzuz. Atzerri Gaietarako Batzordean parte hartu zuen SNPko lehen parlamentaria izan zen. Era berean, Alex Salmond eta Nicola Sturgeon Eskoziako lehen ministro nazionalisten aholkularia izan da. Liburu bat argitaratu berri du: *Nation to Nation: Scotland's Place in the World*.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



BRANDON HAMBER

Jatorriz hego Afrikakoa, Belfasten bizi da. Irakaslea, Bakearen John Hume eta Thomas P. O'Neill katedraduna, Ulster-eko (ipar Irlandako) unibertsitatean ikerketarako Nazioarteko Institutuan kokatua, Witwatersrand-eko unibertsitateko Center for Migration and Society-n ere parte hartzen du, hego Afrikan. Ulster-eko unibertsitateko justizia trantsizionaleko institutuko kide, ikerketa lan ainitz burutu ditu Brandon Hamber-ek eta bake eta berriz adiskidetze prozesu ainitzetan parte hartu du: Liberia, Mozanbiki, Bosnia, Sierra Leona, Euskal Herria... Hego Afrikan plantan ezarri zen Egia eta Berriz Adiskidetze lan taldearen idatzi ainitzen egilea da ere, hego Afrika eta ipar Irlandako trantsizio eta berriz adiskidetze prozesuetako idatzien egile, eta bortizkeria politikoak populakuntzengan dituen eragin psikologikoen idatzien egile.



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges


International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



CARLOS MARTIN BERISTAIN

Medikua, psikologian berezitua, giza eskubideen urraketa pairatzen duten biktimekin lan egiten du 1989tik. Hainbat herritan memoria kolektiboko proiektuetan inplikatur, « Guatemala Nunca Mas » » (Guatemala inoiz gehiago ez) dokumentuaren koordinatzailea, egiaren batzordeko aholkulari izan zen ere Paraguaien, Perun eta Ekuadorren. Mendebaleko Saharako desagerpen eta hobi komunen inguruko ikerketak burutu zituen. Glencree proiektuan inplikatu zen Irlandan, eta giza eskubideen defentsarako Amerikarteko batzordeko berezitu independenteen taldeko kide izan zen, Mexikon desagertu ziren Aytzopinapa eskolako 43 ikasleen aferan. Egiaren Batzordeko arduradun izan zen Kolonbian, eta René Cassin saria eman zion 2020an euskal gobernuak. Hainbat lanen egile, azkena 2021ean argitaratu zuten, « Una maleta colombiana » izenburupean (Bogotako Egiaren Batzordearen laguntzarekin egina).



A DECADE AFTER AIETE

Lessons and challenges

International seminar
Donostia-San Sebastián - Bayonne

EUS



JEAN-PIERRE MASSIAS

Euskal Herrian bizi da. Paueko eta Aturri aldeko Unibertsitatean zuzenbide publikoko irakasle da, eta Justizia eta Demokraziaren Institutu Frantsesduneko presidente. Trantsizio demokratikorako prozesuetan eta justizia trantsizionalean berezitua da, Demokraziaren aldeko Veniseko batzordeko berezitu izan da Europako Zuzenbide Kontseilutik. Oxford-eko unibertsitatean bi egonaldi egin ondoan, Senior Associate Member gisa Saint Antony's college-ean 2002an eta 2005ean, bere ikerketak euskal gatazkaren konponbidean, guttiengoan eskubide linguistiko eta kulturalean, eta justizia trantsizionalean oinarritu dira. Europa ekialdeaz gain, hainbat misiotan parte hartu du, Burundin, Afrika Erdialdeko Errepublikan, Kurdistan irakiarrean eta lurralde Palestinarretan.